Ayuntamiento | Udala

IDAZKARITZA, ZERBITZU JURIDIKOAK ETA KONTRATAZIOA — SECRETARÍA, SERVICIOS JURÍDICOS Y CONTRATACIÓN

irun

www.irun.org

EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

2018 API. ABR. 04

SARRERA | IRTEERA
Zk. 276094 | Zk.

IRTEERA - SALIDA
Ayuntamiento / Udala — I.Z.J.K. / S.S.JJ.C — Irun
27 MAR 2018
Idazkaritza eta Zerbitzu Juridikoak / Secretaría y Servicios Jurídicos
Nº 125 Zk.

Honi erantsirik bidaltzen da, merkataritzagune handiak eta Lurralde-Plan Sekorialari buruzko buruzko mozioaren ziurtagiria, Irungo Udalak 2018ko martxoaren 23an eginiko osoko bilkuran onartua.

Adjunto se remite certificación de la moción aprobada en sesión plenaria el día 23 de marzo de 2018, sobre los grandes centros comerciales y el Plan Territorial Sectorial.

Irun, 2018ko martxoaren 26an - Irun, 26 de marzo de 2018

ALKATE FUNTZIOTAN/EL ALCALDE EN FUNCIONES

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA — SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Stua./Fdo. Miguel Ángel Páez Escamendi

**Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco**
*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila*
*Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda*
Donostia-San Sebastián, 1 LAKUA
01010 VITORIA-GASTEIZ

Ayuntamiento
IDAZKARITZA, ZZ. JJ. ETA KONTRATAZIOA

Udala
SECRETARÍA, SS. JJ. Y CONTRATACIÓN

irun
www.irun.org

**JUANA MARÍA HERRADOR CARRIEDO ANDEREAK, ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA, IRUNGO UDALEKO IDAZKARIA NAIZEN HONEK**

**ZIURTATZEN DUT:**

Udalbatzak, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita hiruan, eginiko bilkuran, merkataritzagune handiak eta Lurralde-Plan Sektorialari buruzko mozioa hau onartu zuen:

MERKATARITZA-GUNE HANDIAK ETA LURRALDE-PLAN SEKTORIALA

Gure lurraldearen antolamenduan berebiziko garrantzia dute merkataritza-ekipamenduek. Sektore estrategikoa da, ekonomiari bete-betean eragiten diona, eta gure kontsumo- eta bizi-ohiturak errotik baldintzatzen dituena.

Azken aldian maiz iristen zaizkigu merkataritza-gune handiei buruzko albisteak. Gune berrien proiektuak nonahi sortu dira. Donostia inguruan, ekialdetik mendebaldera, ez dira gutxi proposatu diren egitasmoak: Zaldunborda, Illunbe, Garbera, Belartza, eta beste hainbat. Gutxi gorabeherako estimazioa eginda, esan daiteke horiek gauzatuz gero beste 210.000 m² gehiago okupatuko liratekeela merkataritza-gune handietarako. Donostialdea, de facto, korridore komertzial handi bat bihurtuko litzateke.

Paradoxikoki, handitzeko joera hori ez

**DOÑA JUANA MARÍA HERRADOR CARRIEDO, LICENCIADA EN DERECHO, SECRETARIA GENERAL DEL EXCMO AYUNTAMIENTO DE IRUN**

**CERTIFICO:**

Que el Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día veintitrés de marzo de dos mil dieciocho, aprobó la siguiente moción sobre los grandes centros comerciales y el Plan Territorial Sectorial:

LOS GRANDES CENTROS COMERCIALES Y EL PLAN TERRITORIAL SECTORIAL

Los equipamientos comerciales tienen una enorme importancia en la planificación de nuestro territorio. Se trata de un sector estratégico, que afecta de lleno a la economía, y que condiciona profundamente nuestro consumo y nuestros hábitos de vida.

En estos últimos tiempos, nos llegan con frecuencia noticias relacionadas con los grandes centros comerciales. Han surgido por todos lados proyectos de nuevos centros. En los alrededores de Donostia, de este a oeste, no han sido pocos los proyectos propuestos: Zaldunborda, Ilunbe, Garbera, Belartza, y otros tantos. Haciendo un cálculo aproximado, podría decirse que, en el caso de que se materializaran esos proyectos, se ocuparían otros 210.000 m2 para centros comerciales. De facto, Donostialdea se convertiría en un gran corredor comercial.

Paradójicamente, esa tendencia expansiva no

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARÍA AYUNTAMIENTO DE IRUN

dator bat mundu zabalean, eta guregandik gertu ere, nabarmentzen den ereduaren krisiarekin. Gaur egun, merkataritza-guneak ixten ari dira. Joera orokorra da, bestelako eredu batzuek (bereziki online merkataritzak) hartu duten indarrarengatik.

coincide con la evidente crisis del modelo a lo largo de todo el mundo, y también cerca de nosotros. En la actualidad, los centros comerciales se están cerrando. Es una tendencia generalizada, debida a la fuerza que van tomando otros modelos (principalmente el comercio on line).

Honetaz gain, merkatari txikien egoera gero eta zailagoa eta milaka lanpostu galdu dira azkeneko hamarkadetan gure lurraldean. Gainbehera honek, eragin ekonomikoa izateaz gain, gure hiri zein herri ereduan izugarrizko eragina du ikuspegi sozial, energetikoa, edo eta mugikortasunari dagokienez.

Aparte de eso, la situación del pequeño comercio es cada vez más difícil, y en las últimas décadas se han perdido miles de puestos de trabajo en nuestro territorio. Este declive influye no solo en el aspecto económico, sino que afecta enormemente al modelo de nuestras ciudades y pueblos, en lo que respecta al aspecto social, energético, y/o el de la movilidad.

Egoera honetan, proiektu berri ugarien presakako tramitazioek desestabilizazioa ekarri dute. Inoiz baino beharrezkoagoa da sektorea erregulatzea, udalez gaindiko planifikazioa, eta neurriz kanpoko handitze-eskaera horiei muga jartzea. Inoiz baino beharrezkoagoa da merkataritza-, kontsumo- eta bizi-ohiturak zaintzea, eta gure herrietako izaera, bizitza, erro sakonak dituena, babestea.

En esta situación, la tramitación urgente de muchos nuevos proyectos han causado desestabilización. Se hace más necesaria que nunca la regulación del sector, la planificación supramunicipal, poner límite a esas ilimitadas solicitudes de expansión. Resulta más necesario que nunca vigilar los hábitos comerciales, de consumo y de vida, y preservar el carácter, la vida –de raices tan profundas– de nuestros pueblos.

Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aurkeztua du "*Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa Eta Merkataritza Ekipamenduak Sortzeko Lurralde Plan Sektorialaren Berrikuspen Partzialaren Aurrerakina, Merkataritza-Gune Handien Antolamenduari Dagokionez*" izeneko dokumentua. Dokumentu horrek aukera eman behar luke merkataritza-guneen ugaritzea eta handitzea

Precisamente, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco ha presentado el documento llamado *"Revisión Parcial del PTS de cración pública de suelo para actividades económicas y de equipamientos comerciales de la CAPV, en lo relativo a los grandes centros comerciales. Avance."*. Dicho documento, debería hacer posible regular y ajustar el aumento y la proliferación, desde un punto de vista supramunicipal.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

arautzeko eta doitzeko, udalerriz gaindiko ikuspegi batetik.

PROPOSAMENA

1- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aurkeztu duen merkataritza-gune handien antolamenduari buruzko aurrerakinaren azterketa eta berrikuspena egingo du Irungo Udalak, eta dokumentu horri ekarpenak aurkeztuko dizkio, sektorearen gaindimentsionatzea geldiarazteko eta merkataritza-eskaintza ez desorekatzeko.

2- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari eskatzen diogu merkataritza-gune handien antolamenduari buruzko lurralde plan sektoriala behin-betiko onartu arte ez ditzala baimendu tramitazio-bidean dauden eskaerak eta Gipuzkoa ekialdeko udalei eskatzen diogu ez aldatzea egungo planeamendua horrelakoei bide emateko. Izan ere, sektorea erregulatzeko prozedura martxan dagoen bitartean, guztiz kaltegarria da ekimen berriei bide ematea.

3- Erabaki honen berri helaraziko zaio Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

PROPUESTA

1.- El Ayuntamiento de Irun analizará y revisará el avance presentado por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco en relación a la ordenación de los grandes centros comerciales, y presentará aportaciones al mismo, con el objetivo de detener el sobredimensionamiento del sector y a fin de que la oferta comercial no se desequilibre.

2.- Solicitamos al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco que no autorice las solicitudes en trámite en tanto no se apruebe definitivamente el plan territorial sectorial sobre la ordenación de los grandes centros comerciales; y solicitamos a los ayuntamientos del Este de Gipuzkoa que no cambien su actual planeamiento, para no dar lugar a este tipo de situaciones. Y es que resulta muy perjudicial dar cauce a nuevas iniciativas, estando aún en marcha el procedimiento de regulación del sector.

3.- Se dará traslado de este acuerdo al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARÍA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Eta jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak sor ditzan, jasoko den akta onartzetik azken batean erabakiko denari kalte egin gabe,

Y para que conste y surta efectos donde proceda, sin perjuicio de lo que en definitiva resulte de la aprobación del Acta correspondiente, se

honako ziurtagiri hau egin dut Alkate jaunaren aginduz eta bere oniritziarekin, Irunen, bi mila eta hemezortziko martxoaren ..26...(e)an.

extiende la presente certificación de orden y con el visto bueno del señor Alcalde, en Irun a ...26.....de marzo de dos mil dieciocho.

O I/ V°B°
ALKATE FUNTZIOTAN / EL ALCALDE EN FUNCIONES

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN